



Berriozarko Musika Eskola Oianondoa kaleko 1. zenbakian dago, erabilera publikoko lur-zati handi batean, Iruñean sartzeko autopista alde batean eta, bestean, Kaleberri eta Bordabidea kaleak. Lur-zati handi honetan plaza publiko handi bat eraikiko da, eta, plazaren inguruan, Musika Eskolarekin batera, Berriozarko eraikin publiko nagusiak: Osasun Etxea, Udal Liburutegia, Udaletxea eta Kultur Etxea (azken bi hauek oraindik eraiki gabe).

Musika Eskolako sarrera plazaren aldean dago. Eraikinaren **fatxada bistako adreiluz** egina dago eta modulu bereko leihoak dauzka. Leihoetan xafla zulatuzko kontraleiho lerragarriak daude gainjarrita. Eraikinaren irudi kubikoa goialdeko bi **sabai-leihok** hausten dute, Musika Eskolaren erdian kokatutako gelei zenit-argia ematen dietenak.

Musika Eskola berria **Berriozarko Udalak** sustatu zuen eta hark kudeatzen du. Berriozarko Udalbatzak "Francisco Casanova" izena ematea erabaki zuen. Eraikitze aurrekontua **1.815.653 eurokoa** izan zen (**302 milioi pezeta**), Nafarroako Gobernuak ordaindua. Eraikitze-lanek urte eta erdi iraun zuten.

Eraikinaren proiektua Mariano González, Juan Otxotorena, Javier Pérez eta José Valdenebroren **arkitekto taldeak** egin zuen.